



(Argazkia / Foto: Gari Jaso)

## ZIURTAGIRIA 2017 jaso duten entitateak

## Entidades que han obtenido el CERTIFICADO 2017

### \* BIDEAN:

1. Andrómeda Belardenda/Herbolario
2. Barañáin Auditorioa Fundazioa/  
Fundación Auditorio Barañáin
3. Euskal Kantak
4. Geroa Bai
5. Gizarte Eskola/ Escuela Social
6. Centro Veterinario ABODI
7. Coral Barañáin Abesbatza (**BERRIA**)
8. Cubillas Botika
9. Cubillas-Barricart Botika - Beatriz
10. Gogorza Anaiak harategia/Carnicería
11. Hegoalde Taberna
12. Iratxo Taberna
13. Izquierda/Ezkerra
14. Kaioa Taberna

15. Karrape taberna Los Porches
16. Kukuma Gozo-denda/Tienda chuches
17. Lurgorri Taberna Jatetxea
18. Merlet S.L.
19. Muruzabal Bizikletak/ Bicicletas
20. Participando en Barañáin/  
Barañáin parte hartzen
21. Sada Hertz Klinika / Clínica dental
22. Studio Liburudenda/Librería
23. Sugandilla informatika
24. Tantatic Diseinu eta Garapena/  
Diseño y Desarrollo
25. Tecniauto Auto Tailerra/ Taller coches
26. Txaranga Igandea

### \* ZERBITZUA EUSKARAZ:

27. Akelamendi Taberna
28. Alaitz Guraso Elkarte-Apyma
29. Barabatu Barañaingo Batukada (**BERRIA**)
30. Gazte Asanblada (**BERRIA**)
31. Jai Batzordea
32. Trikitilari Eskola
33. EHBildu Barañáin
34. Mugarri Guraso Elkarte
35. Plazaberri Elkarte

### \* ZERBITZUA eta LANA EUSKARAZ:

36. Hagin Erakunde Feminista (**Mailaz igo**)
37. Haizea Kultura Elkarte
38. Harizti Barañaingo Dantza Taldea
39. Sahats Fundazioa




Certificado dirigido a las empresas, comercios y entidades que han adoptado y están desarrollando medidas para el uso del euskera.



Certificado dirigido a las empresas, comercios y entidades que ofrecen sus servicios en euskera.



Certificado dirigido a las empresas, comercios y entidades que ofrecen sus servicios en euskera y lo utilizan como idioma de trabajo.



[www.baduzu.eus](http://www.baduzu.eus)  
(Euskal kontsumitzaileen kluba)

Eskuragarri:





## Barañaingo Udalaren eta Sahats Fundazioaren arteko 2017ko Elkarlan Hitzarmenaren sinatze ekitaldia.

(2015-2019 legegintzaldia; Oihane Indakoetxea Barberia alkate)



(Argazkia / Foto: Euskara arloa)

## Firma del Convenio de Colaboración de 2017, entre el Ayuntamiento de Barañáin y la Fundación Sahats Fundazioa.

(Legislatura 2015-2019; alcaldesa Oihane Indakoetxea Barberia)



Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura

UNESCO dispone de un Atlas interactivo de las lenguas del mundo clasificadas en distintos grados de vulnerabilidad. Entre ellas encontraréis el euskera, lengua propia de Navarra.

<http://www.unesco.org/languages-atlas/es/atlasmap/language-id-415.html>

## Euskaraz bizitzen saiatzeko aholkuak

Zailtasun handiak izaten ditugu euskaraz bizitzeko, baina badira egunerokoan eman ditzakegun pausoak. Hemen, horretan lagungarri izan daitezkeen aholkutxo batzuk aurkituko dituzue:

- 1. Euskaldunak euskaldunari, beti euskaraz.** Guk egiten ez badugu, nork egingo du euskaraz?
- 2. Ezezagunari ere, lehen hitza euskaraz.** Gutxien uste duguna izaten da euskalduna, eta hala ez bada, jakin dezala euskaldunak bagarela.
- 3. Telefonoa hartzean ere, lehen hitza euskaraz.** Horrela eginez gero, euskaldunari euskaraz mintzatzeko aukera emango diogu.
- 4. Udalarekin eta gainerako administrazioekin, euskaraz.** Zerbitzu publikoa euskaldunoi gure hizkuntzan ematea dagokie administrazioei, zergak gainerako herritarrek bezalaxe ordaintzen ditugun herritarrek garen aldetik.
- 5. Zerbait erostean, zerbitzua euskaraz ematen duena hobetsi.** Gure dirua nahi duenak, gure hizkuntza ere bai. [www.baduzu.eus](http://www.baduzu.eus)
- 6. Euskarazko kultur produktuak kontsumitu:** euskarazko komunikabideak (egunkaria, irratia...), liburuak, diskoak, kultur ekitaldiak...
- 7. Teknologia berrietan euskara erabili.** Euskarazko programa informatikoak erabili

<http://www.euskarabidea.es/euskara/baliabideak/softwarea-euskaraz>, sare sozialetan euskaraz egin, eskuko telefonoa euskaraz jarri...

**8. Euskararen kontrako jokabideak salatu eta egokiak txalotu.** Hizkuntza Eskubideen Behatokia: 902 194 332 [www.euskararentelefonoa.com](http://www.euskararentelefonoa.com) / [www.akuilari.eus](http://www.akuilari.eus)

**9. Euskara maila hobetu.** Euskaraz jantzi, bizitzaren alor guztietan euskaraz aritzeko trebatu. <http://baranain.ikaeuskaltegiak.eus>

**10. Euskal tradizioa eta ohiturak hobeki ezagutu.**

**11. Inguruko erdaldunak euskara ikastera bultzatu.** Milaka eta milaka heldu nafarrek ikasi dute euskara azken 40 urte hauetan. Gure inguruko erdaldunek zergatik ez dute beste hainbeste egingo?

**12. Euskara ikasten ari diren helduei ahal dugun guztia lagundu,** eta haien ahaleginak sortzen dugun poza erakutsi.

**13. Euskararen alde egunerokoan lanean ari diren herri mugimenduak lagundu eta babestu,** borondatezko lanaren bidez, diruz, deitzen dituzten mobilizazioetan parte hartuz, inguruko artean mugimendu horien aldeko jarrera zabalduz....  
**euskaraz, ikas eta ari.**

(Joxerra Olano, Bai euskarari egitasmoaren kudeatzailea / Gestor proyecto Bai euskarari)

Langile elebidunak arreta euskaraz eskaintzeko prestatuta daude, edota euskalduntze prozesuan aurreratuta; beraz, erabili euskara udalarekin dituzun harremanetan.



El personal bilingüe, y aquél que está avanzado en el proceso de aprendizaje del euskera, está preparado para atender en euskera a la ciudadanía que así lo decida.